



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2010-02-24ko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko otsailaren hogeita lauan, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna eta Begoña Garmendia Vazquez andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi dute: eta Igone Arruti Olazabal andrea eta Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA
AURREKO BILERETAKO AKTAK ONARTZEA.

Aho batez erabaki du udalbatzak hurrengorako uztea hauen onarpena, hauek sakonago aztertzeko denbora gehiagoren beharra egoki ikusi ondoren.

BIGARRENGO GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2010-01-12ko 01/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 404,03.- €.
- 2010-01-15eko 02/2010 Dekretua: J.A.ri eskatzea Estrata Etxeko estolderia sistema nola egingo den adierazten duen dokumentazioa ekartzea.
- 2010-01-25eko 03/2010 Dekretua: 2009ko bigarren seihilekoari dagozkion urari buruzko tasen errolda jedaurrean jartzea.
- 2010-01-25eko 04/2010 Dekretua: 2009ko bigarren seihilekoari dagozkion zaborrari buruzko tasen errolda jedaurrean jartzea.
- 2010-01-25eko 05/2010 Dekretua: JMMAK eskatutako lehen erabilpeneko baimena ematea.
- 2010-01-25eko 06/2010 Dekretua: EEZParen zuzendaritza probintzialak egindako dirulaguntza deialdian, ludoteka zerbitzua proiektua aurkeztea.
- 2010-01-29ko 07/2010 Dekretua: Larrano Basolanari likidazioa



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

erreklamatzea.

- 2010-02-08ko 08/2010 Dekretua: Udaleko zigiluak berritzeko baimena ematea Tolosako Kopibat enpresari.
- 2010-02-12ko 09/2010 Dekretua: Excavaciones Otalastei SLri lehen ziurtagiriaren ordainketa egitea. Guztira 24.940,00.-€.
- 2010-02-12ko 10/2010 Dekretua: MSA eta GIMri likidazioa erreklamatzea.
- 2010-02-16ko 11/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 774,00.- €.
- 2010-02-16ko 12/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 158,29.- €.
- 2010-02-19ko 13/2010 Dekretua: 35.776.463-D udal langileari, martxoaren 3an medikura joateko baimena ematea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARRENGO GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, KREDITU KONTUAREN BERRITZEA EGITEA.

Ikusirik, 2009ko martxoaren 3an, Beizamako Udalak 200.000.-€ko kontu korronteko kreditua sinatu zuela Kutxa erakundearekin, 2008ko abenduaren 29ko Osoko Bilkuran erabakitakoari jarraituz.

Ikusirik, kreditua babesten zuten dirulaguntzak jaso direla eta Beizamako Udalak kreditua likidatzeko besteko kopurua badaukala bere kontu korrontean.

Ikusirik, udalerriko ur-sareko ezusteko matxurek behartuta, ezinbesteko inbertsioak egin beharra izan duela udalak eta itzultzeko zegoen kopurua erabiltzea beste aukerarik egon ez dela.

Ikusirik, Kutxako ordezkariekin hitz egin ondoren, posiblea dela zati bat ordaindu eta epemugaren luzapen bat eskatzea.

Ikusirik, ordainketa egiteko nahiko babes ematen diola udalari, lehenik, esleitu berria duen 66.000.-€ko dirulaguntza; bigarrenik, 2010eko ekitaldirako Udal Finantzaketarako Foru Fondoak esleitutako kopurua (180.525.-€); eta hirugarrenik, likidazio prozesuan dauden eta kobratzeko zain daude kobrantzak (90.000.-€tik gora).

Ikusirik, indarrean den kontu korronteko kredituak 2010eko martxoaren 3a arteko epemuga duela.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Kontuan hartuz, besteen artean, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.m artikuluan araututakoa, Udaltzarak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Kutxa erakundeari 100.000.-€ko ordainketa egitea sinatuta dagoen kontu korronteko kreditua partzialki ordaintzeko.

Bigarrena.- Gainontzekoa ordaindu ahal izateko, luzapen bat eskatzea eta epemuga urte betez atzeratzea.

Hirugarrena.- Beharrezkoa den dokumentazio guztia sinatzeko alkatea ahalordetzea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

LAUGARRENGO GAIA
GALDERA ETA ESK AERAK

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udaltzarak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

BEIZAMAKO UDALA ETA BEIZAMAKO KANPO KOPERATIBAREN ARTEKO
HITZARMENA ALDATU ETA BERRESTEA.

Ikusirik, Beizamako Udalak bi mila bederatziko apirilaren hogeita bederatzian egindako Osoko Bilkuran onartu zuen, besteen artean, Beizamako San Lorentzo Kooperatibarekin dagokion hitzarmena sinatzea, Kooperatibaren desegite eta likidazio bezala gelditutako dirua San Lorentzo ermita berrizatzeko bideratzeko.

Ikusirik, aipatutako hitzarmenean ez zela kontuan izan Beizamako Kanpo Kooperatiba desegitean egin beharreko likidazioaren gastu finantzario eta zergazkoak ere ordaindu beharra izango zela.

Aurreko guztia ikusirik, Udaltzarak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Lehena.- Hitzarmena sinatzeko nahia berrestea.

Bigarrena.- Beizamako San Lorentzo Kooperatibarekin egindako hitzarmena aldatzea eta honekin, udalaren kontu izango dira sortuko diren zerga eta gastu finantzarioak.

Hirugarrena.- Aurreko guztia jasoko duen hitzarmena sinatzeko alkatea eskuordetzea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

BEIZAMAKO BAKE EPAILE TITULARRAREN ORDEZKOA IZENDATZEA

Ikusirik, udal honetan 2009ko ekainaren bederatziko zazpiko sarrera datarekin EHJEGtik jasotako adierazpenaren aurrean, Osoko Bilkurak bake epaile titularra eta haren ordezkoa hautatzeko jardunbideari hasiera eman zitzaiola, 2009ko ekainaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz eta herriko etxebizitza guztietan iragarpen bat bananduz.

Ikusirik, izenemateko epea bukatu ondoren aurkeztutako izangaiak ondorengoak izan zirela:

- Onintza Múgica Ayerbe
- Jon Leunda Otaegi
- Manuel Labaka Garmendia

Ikusirik, Jon Leunda Otaegik bere izendapenari uko egin ziola eta EAEko Auzitegi Nagusiak 2010ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, besten artean, ordezkoko bake-epailea berehala izendatu behar dela adierazi diola Beizamako Udalari.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Onintza Múgica Ayerbe proposatzea Beizamako Ordezko Bake-Epaile.

Bigarrena.- EHJEGri dagokion jakinerazpena egitea.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

BEIZAMAKO BIZTANLE KOPURA ONARTZEA

Alkateak ondoko erabakikuntzaren (20/2010) berri ematen du:

“Ikusirik, 2009ko biztanle udal eroldaren mugimenduak.

Ikusirik, Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugapenaren Araudia



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

onartzen duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 60. artikulua eta hurrengoak.

Kontuan hartuz, Erregimen Lokaleko Legediak izendatzen dituen ahalmenak, besteak beste, apirilaren 2ko 7/1985eko Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.s artikuluan xedatutakoaren arabera

ERABAKI DUT

LEHENIK.- 2010eko urtarrilaren 1ko BIZTANLE ERROLDAREN ZUZENKETA ETA ALDAKETAK onartzea, Beizamako Udalerriak data horretan 185 biztanle zituela adieraziz.

BIGARRENIK.- Dekretu horren berri ematea Beizamako Udalbatzari, egingo duen hurrengo Ohiko Osoko Bilkuran.”

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 19:50etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.